2019ko urrian erregistratutako langabezia

2019ko urrian zehar LANBIDE-ko bulegoetan %1,5 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 115.341 da, irailean baino 1.707 gehiago. Krisiaren lehen urtetatik ezta egon horrela-ko hazkunderik, nahiz eta oraingoan, igoera ezta hain haundia izan. Egia da ere, aurreko hilean izandako langabeziaren jaitsiera oso esanguratsua izan zela, beraz, esan daiteke, hil honetako hazkundeak hori konpentsatu duela.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, 7.074 pertsonetan murriztu da langabezia. Honenbestez, urte-arteko saldoaren erritmoa geldotu egin da.



2019ko urrian erregistratutako langabezia

- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago hazi da (% 3,26) emakumezkoen artean baino (% 0,21). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean langabezia % 5,09 jaitsi da eta emakumezkoen artean % 6,29. Gaur egun langabeen % 56,9 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin guztietan hazi da. Hazkunde haundiena 25 urte baino gutxiago dituztenen artean izan da (+5,26%). Urte arteko saldoan, adin-tarte guztietan jaitsi da langabezia 25 urtetik beherakoen artean izan ezik. 35 eta 44 urte artean izan da beherakada haundiena (%10,19). 54 urtez gorakoen artean langabezia motel murrizten da, lan munduratzearen zailtasunak agerian utziz biztanleria helduaren artean. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urrian zehar, lehen sektorean hazi da gehien kopuru erlatiboetan (% 17,64), kopuru absolutuetan, aldiz, zerbitzuen sektorea izan da (775 langabe gehiago, %1,02ko hazkundea). Eraikuntza sektorean langabezia % 0,30 hazi da eta industrian % 2. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 1,85 hazi da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa, % 9,69ko jaitsiera, eta lehen sektorekoa (% 7,68ko jaitsiera) nabarmentzen dira. Beste sektoreen jaitsiera %6 ingurukoa izan da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa haundiena izan duen jarduera hezkuntza izan da; 696 langabe gutxiago. Murrizketa izan duten beste jarduerak lankidetzakoak (-69) eta aisialdi jarduerak (-62) izan dira. Langabezia hazkunde haundiena erregistratu dutenak hauek izan dira: janari eta edarien zerbitzuak (+399), nekazaritza eta abeltzaintza (+375), enpleguarekin lotutako jarduerak (+230) eta handizkako merkataritza (+221).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe laburreko langabezia 1.946 pertsonatan hazi da eta epe luzekoa 239 pertsonatan murriztu. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 11,5a) epe laburrekoen artean baino (% 0,47). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Urrian langabezia hiru lurraldeetan hazi da. Balio erlatiboetan Gipuzkoan hazi da gehien (% 1,85, 551 langabe gehiago), guztira 30.265 langabe daude. Bizkaian, irailean baino 1.073 langabe gehiago daude, %1,65eko igoera; guztira 66.039 langabetu. Eta, azkenik, Araban 83 langabetu gehiago daude, %0,44ko igoera; guztira 19.037 pertsona langabezian.

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio onena % 6,12ko jaitsierarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 5,86ko jaitsierarekin eta azkenik Araban % 4,94 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 271 pertsonatan hazi da langabezia, Donostian 170 pertsonatan eta Gasteizen, aldiz, 161 langabe gutxiago daude. Langabezia murriztu diren eskualdeak Gobela (-22), Gorbeia inguruak (-3), Txorierri (-2) eta Goierri (-1) izan dira. Langabezia modu esanguratsuan honako eskualdetan hazi da hilabete honetan: Ezkerraldea (+440), Arabar Errioxan (+151), Bidasoa Beherean (+128) eta Uribe-aldean (+97).

2019ko urrian erregistratutako langabezia

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 20,43), Sestao (% 18,06), Lantziego (% 16,89), Labastida (%16,52) eta Lanestosa (% 16,19).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko urrian 39.197 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.180 langabe gehiagok. Langabeen % 34k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.857 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,8 dira horiek. 15.738 langabek (% 14,2), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 37), Bizkaian % 33koa da eta Araban %32koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.53 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 4.24 puntu hazi da.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,6k (69.932 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.745 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 7,06 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan %1,53 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean, aldiz, % 4,65 jaitsi da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.512 dira, hau da, langabeen % 17,8. Talde hau urrian % 2,42 hazi da, eta azken urtean, aldiz, % 3,76 murriztu.

Azkenik, langabeen % 12,8k (14.732 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 4,39 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 3,10 azken urtean. Hezkuntza sektorearen berraktibatzeak azaltzen du talde honetan izan den hil arteko bilakaera positiboa.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,8 (18.225 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, ikusten da langabezia gehiago hazi dela atzerritarren artean (+%5,16) bertakoen artean baino (+% 0,84).

Langabe atzerritarren % 35,1a Afrika iparraldekoak dira, % 21,6a Latinoamerikatik datoz, % 19,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 14,3a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,4, azkenik, Asiatik. Urrian Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Afrika iparraldetik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (273 eta 232, hurrenez hurren).

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Udako turismo garaia eta lehen sektorekoa amaituta, Estatuan, 97.948 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 3,18ko hazkundea). Guztira 3.177.659 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,5 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabezia nabarmen hazi da: Errioxan % 9,05, Kantabrian % 5,18, Gaztela eta Leonen +% 5,24 eta Nafarroan %4,67. Katalunian % 3,93 hazi da eta Madrilen % 1,01.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-% 3,65) EAEren aldean (-% 6,09).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko urrian

	urr-2019	ira-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	**49.724**	**48.154**	**1.570**	**3,26**
EMAKUMEZKOAK	**65.617**	**65.480**	**137**	**0,21**
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	**8.411**	**7.991**	**420**	**5,26**
GIZONEZKOAK	**4.274**	**4.021**	**253**	**6,29**
EMAKUMEZKOAK	**4.137**	**3.970**	**12**	**4,21**
25-44 URTE:				
GUZTIRA	**48.367**	**47.933**	**434**	**0,91**
GIZONEZKOAK	**20.108**	**19.317**	**791**	**4,09**
EMAKUMEZKOAK	**28.259**	**28.616**	**-357**	**-1,25**
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	**58.563**	**57.710**	**853**	**1,48**
GIZONEZKOAK	**25.342**	**24.816**	**526**	**2,12**
EMAKUMEZKOAK	**33.221**	**32.894**	**327**	**0,99**
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	**2.547**	**2.165**	**382**	**17,64**
INDUSTRIA	**7.980**	**13.423**	**-5.443**	**-40,55**
ERAIKUNTZA	**13.691**	**7.956**	**5.735**	**72,08**
ZERBITZUAK	**76.889**	**76.114**	**775**	**1,02**
AURREKO ENPLEGURIK GABE	**14.234**	**13.976**	**258**	**1,85**
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	**19.037**	**18.954**	**83**	**0.44**
BIZKAIA	**66.039**	**64.966**	**1.073**	**1,65**
GIPUZKOA	**30,265**	**29.714**	**551**	**1,85**
EAE	**115.341**	**113.634**	**1.727**	**1,50**

2019ko urrian erregistratutako langabezia

	Langa-betuak	Erregistratuta-ko langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.002	10,8%	128	3,30	-74	-1,82
Oarsoaldea	3.433	9,6%	39	1,15	-300	-8,04
Donostia-S.Seb.	7.341	8,4%	170	2,37	-600	-7,56
Donost.Mendebaldea	2.914	8,1%	12	0,41	-240	-7,61
Tolosaldea	1.971	8,5%	58	3,03	-181	-8,41
Urola Erdia	1.206	8,1%	28	2,38	-99	-7,59
Goiherri	1.603	7,7%	-1	-0,06	-121	-7,02
Deba Garaia	2.392	8,0%	5	0,21	-178	-6,93
Deba Behera	2.757	10,5%	12	0,44	-118	-4,10
Urola Garaia	1.094	9,2%	22	2,05	38	3,60
Urola Kosta	1.552	7,0%	78	5,29	-101	-6,11
GIPUZKOA	30.265	8,8%	551	1,85	-1.974	-6,12
Vitoria-Gasteiz	14.774	12,0%	-161	-1,08	-921	-5,87
Aialako Ibarra	2.251	11,9%	71	3,26	-125	-5,26
Arabar Errioxa	716	13,5%	151	26,73	44	6,55
Arabako lautada	662	9,0%	3	0,46	2	0,30
Gorbeia inguruak	278	6,0%	-3	-1,07	2	0,72
Arabako Ibarrak	376	7,8%	17	4,74	-23	-5,76
Arabako Mendialdea	101	6,8%	2	2,02	-6	-5,61
ARABA	19.037	11,6%	83	0,44	-990	-4,94
Gobela	4.796	9,2%	-22	-0,46	-191	-3,83
Txorierri	2.120	9,2%	-2	-0,09	-247	-10,44
Uribealdea	3.014	9,2%	97	3,33	-38	-1,25
Durangaldea	3.254	8,7%	87	2,75	-1	-0,03
Busturialdea	2.151	9,9%	48	2,28	-36	-1,65
Lea-Artibai	952	7,9%	-3	-0,31	-76	-7,39
Enkarterriak	2.114	13,6%	61	2,97	-166	-7,28
Arratia-Zornotza	1.466	8,5%	44	3,09	-69	-4,50
Arratia-Nerbioi	1.283	9,8%	38	3,05	-133	-9,39
Bilbo	22.671	13,6%	271	1,21	-1.870	-7,62
Ezkerraldea	17.600	14,1%	440	2,56	-920	-4,97
Ibaizabal	4.496	11,2%	17	0,38	-325	-6,74
BIZKAIA	66.039	11,8%	1.073	1,65	-4.110	-5,86
EAE	**115.341**	**10,8%**	**1.707**	**1,50**	**-7.073**	**-5,78**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.